

GORA HERRIA

"Gora Herria" 2009an sortu zen, Euskal herrian asken 25 urteetan egin izan den rock musikari omenaldi bat egiteko asmoz. "Gora Herria" izenaren idea nagusitzen hasiak direnei gure rock musika berrezkuratzeko asmoz eta gaztetxoagoak direnei gure historiaren

zati handi hau erakusteko sortzen da. Beste alde batetik "Gora Herria" izenak beste jatorri bat badu, Negu Gorriaken abestiaren oroimenez. Euskal talde honen abestiek izan zuten eragina beraien printzipio adierazpenak zabaltzeko orduan, eta beste talde batzuei atak irekiz eta mugak apurtuz. Momentu honen ondoren sortu ziren beste talde batzuen abestiak "Gora Herria"ren parte dira, honela iragana eta oraina bat egiten dira, antzinakoa eta gaur egungoa bat eginik aurkezten digutelarik.

Hala ere, "Gora Herria"k ez du bakarrik rock-a eskaintzen, Oskorriren folk-a, Itoiz-en soinu poperoa, eta Son goku bezalako marrazki bizidunetan aurkitzen genituen soinuak ere entzun ditzakegu. Azken finean gure oroitzapenaren parte diren abestiak, gaur egun entzuten ditugun abestiekin bat eginik aurkitzen dira, "Gora Herria" taldean parte hartzen duten doinulariei esker.



Zuzenean ikusi nahi zenituen doinuak, oroitzapenean dituzun abestiak eta gaur egungoak abestu nahi badituzu "Gora Herria" taldeak eskeintzen dizkizu edozein kontzertutan, Euskal herri osoan zehar. Gora herria taldearen zuzeneko baten beti aurkituko duzuna Indarra izango da, bere izenak adierazten duen baikortasunaren adierazpen seinale gisa!